

## **BASO LANDAKETA ETA KUDEAKETAREN INGURUKO MOZIOA**

EAJ udal taldeak honako hau onartu dezala eskatzen diogu Zaldibiako Osoko Bilkurari:

1. Basogintzak eta baso kudeaketak ekonomian, enpleguan, bioaniztasun sortzaile gisa, ingurugiro zainketan eta zerbitzu ekosistemiko sortzaile gisa duen eginkizuna aitortu eta publiko egin dezala.
2. Onura guzti horiek baso kudeatu batek eskaintzen dituela aitorturik, gizartearentzako egungo arazo nagusienetarikoa bat baso kudeaketaren abandonoa dela aitortu eta berau ekiditeko erakunde desberdinen artean (Eusko Jaurjaritza, Foru Aldundiak eta Udala) eta baso sektorearekin elkarlanean, baso kudeaketa sustatzeko politiketan parte hartu dezala, beti ere bere eskumenen baitan.
3. Baso kudeaketa eza izanik arazo nagusia, baso kudeaketa sustatzerakoan ez dadila espezieen neurri gabeko borroka antzuetan hasi, espezie bat edo beste arriskutsu edo kaltegarri landatzen den kopuruaren arabera bihur bai daiteke, ez espeziearen izaera bera kaltegarria delako.
4. Zaldibiako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarrita daukan baso politikarekin bat eginez, eukaliptoia ez den beste landaketa batzuk lehenetsi ditzala. Espezie desberdinak lehenesteko garaian udalak ez ditzala bide debekatuak eta arautuak erabili, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostutako bide pizgarri eta sustatzaileak baizik, baso jabe pribatuei beraien ekimenetan lagunduz.

Zaldibiako EAJ-PNV